

Laudion, 2022ko abuztuaren 10ean

Abuztu honetan osteguneko merkatua egiten jarraituko dela bermatu du Udalak

Sanrokeak direla eta hilaren 25ean, ostegunean, ez da merkaturik egingo

Abuztu honetan Laudioko ostegunetako merkatua egiten jarraituko da, hilaren 25ean izan ezik, sanrokeak, udalerriko jaiak, direla eta. Laudioko Udalak abuztuaren 11ko eta 18ko ostegunetako merkatua bermatzeko duen asmoa joan den abuztuaren 4an eta 5ean jakinarazi zen, komunikazioan izandako akatsa ezagutu ondoren.